



## 1977.eko BATZAR AGIRIAK

1977 - I - 28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1977ko urtarrilaren 28an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. Iriart-Urruti, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; E. Agirretxe, J. L. Alvarez Enparantza, J. M. Aranalde, X. Aranburu, M. Atxaga, I. Berriatua, J. Garmendia Kortadi, J. Garmendia Larrañaga, S. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Gorostiaga, A. Irigaray, A. M. Labayen, P. Larzabal, M. Lekuona, J. M. Lojendio eta Z. Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Abenduko batzar agiria onartu da.

### a) HAR-EMANAK:

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren diru laguntzaz urtero eratzen dugun literatura sariketaz, aurtten Txomin Agirre deritzan eleberri saria izango da eta lehengo arautegi bera onartu da. Saria diruz gehitzeko ahaleginak egingo dira.

Arabako Foru Diputazioak O. Apraiz euskaltzain ohorezkoaren omenaldirako eta aurtengoz ematen digun 500.000,- pezetako dirulaguntzematik eskerrak ematea erabaki da.

HARTU DIREN LIBURUAK: Liburuzainak hartu diren liburuen zerrenda irakurri du eta Donostiako Aurrezki Kutxa, Banco de Bilbao, Gero, X. Kintana, L. Villasante, P. Lafitte eta Jakin-ekoei eskerrak ematea erabaki da.

### b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Idazkariak ematen du bilkuraren berri: Goizeko bilkura hortan 11 euskaltzain bildu dira eta beste 3 euskaltzainek beren etorri ezina adiarazi dute.

Euskararen liburu zuriaren argitalpen teknika Martin Ugalde euskaltzain laguntzailearen esku uzten da. Euskarazko edizioa 3.000 alekoa izango da eta erdarazkoa 10.000 alekoa.

A. Arrue euskaltzain zenaren hutsartea betetzeko proposamen epea gaur bukatzen da eta honako bi proposamenok agertu dira: J. Gorostiaga, A. M. Labayen eta M. Lekuona jaunek izenpeturik, A. Zatarain laguntzaile jaunaren aurkezpena; J. Haritschelhar, A. Irigoyen eta J. M. Satrustegi jaunek izenpeturik, E. Knörr laguntzaile jaunaren aurkezpena. Datorren batzarrean izanen dira hauteskundeak.

J. Zaitegi eta Fernando Aire (Xalbador) zena ohorezko izendatzeaz hitz egin da.

Escuela Superior de Técnica Empresarial (ESTE) delakoak bere batzar nagusietan Euskaltzaindiak parte har dezan eskaria egin du. Hizkuntza arazoak dituztenean ordezkaria bidaltzea erabaki da.

Espainiako eta Frantziako gobernueri euskararen ofizialkidetasunaren eskaria egitea erabaki da.

J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak bere esku utzi zen euskal izendegiaren azalpena egin du, lanak eramango duen hitzaurrea irakurritz.

Ondorean Gramatika batzordeko diren I. Berriatua, J. Intxausti, X. Kintana, J. A. Letamendia eta X. Mendiguren jaunekin bildu dira, hauek daramaten lana aztertzeko. Letamendia jaunak eman du egina duten lanaren adiarazpena. Batzorde laguntzaile berrien eskaria egiten du, Patxi Altuna jauna Salamanca-ra joana denez gero. Letamendia eta Intxausti jaunaren esku uzten da gramatikazko lehen hautapenak egitea, gero aholkularien artean zabaltzeko.

Idazkari ordezekoak Kazetaritzaz egin denaren berri ematen du, ikas-taroak eratzeaz eta titulu baliatzeazko jentioak egiteaz.

#### d) URTEKO EGUTEGIA ETA AINTZINKONTUAK:

Idazkari ordezekoak irakurri du 1977ko batzar egutegia: Martxoaren 27an izanen da Hazparnen J. Idiart-Urruti jaunaren sarrera hitzaldia, uztailearen 10ean Zalgizen P. Lhande zenaren mendeurrenaren ospatzea, eta irailaren 10ean Bilbon Mateo Zabalaren bigarren mendeurrena bide; gainerako batzar arrunt guztiak Donostian egingen dira.

J. J. Zearreta jaunak aintzin kontuen berri eman du. Ihazkoaren araber, aurten 20.464.000 pezetakoa.

Baita ere euskal irakasle tituluak lortzeko etsaminaz hitz egin du. Gasteizen, "Colegio Universitario de Alava" delakoan, D eta B mailako etsaminak otsailaren 26an izango dira. Uztailearen eta urriaren lehen partean egingo dira udarako etsaminak.

#### e) HERRI MAILAKO HIZKUNTZA, ISRAELEKO ESPERIENTZIA:

I. Berriatua jaunaren txostena. X. Kintanaren laguntzaz Israelera egin duen ostera eta handik atera dituen esperientziak agertzen ditu.